

IX In Memoriam de Fernando Buesa y Jorge Díez

Vitoria 22-2-2011

Por Felipe Juaristi

VIVIR CON, VIVIR SIN, VIVIR SOBRE

Felipe Juaristi

Verbo y preposición; la preposición del verbo. En principio era, no el verbo, sino la preposición: la presunción del verbo, su precisión.

Vivir con y vivir sin: convivir y sinvivir, he ahí el dilema.

Vivir con la alegría que produce contemplar, escondido detrás de los visillos, cómo despierta el vecino de enfrente; se despereza, se afeita lentamente, da un beso o dos a su compañera o compañero; mira por la ventana y ve a la gente, pan de humanidad, pasear por la calle.

Vivir con la ilusión de que el día que venga sea nuevo de verdad, y no traiga a la vista manchas antiguas, costra acumulada por el odio y la sinrazón y deje, quizá, algo memorable y digno de ser comentado a la hora de la comida o en el momento del amor.

Vivir con la esperanza de que el hijo o hija que dejamos en la entrada del colegio se hará, con el tiempo, mayor y nos enseñará lo que no hemos podido, o querido, aprender, a mirar con ojos tiernos y a dolerse en el corazón de los demás.

Vivir con la seguridad de que vendrá la tarde y se llenará la cocina de ecos y humos, como siempre, y el suelo se vestirá con migas de pan, y luego vendrá la noche y traerá al cuerpo un sueño de cristal limpio y al alma la sensación cálida del mar.

Vivir con ganas de vivir.

Vivir. Sin vivir.

Vivir sin los amigos que un triste día se fueron; y sólo se sabe de ellos, por unas letras presas en alguna carta que ya caducó.

Vivir sin el paisaje natal, sin la tierra que un día fue lugar de juego y placer y más tarde escenario de dolor.

Vivir sin palabras, por miedo a delatarse, escondiéndose en el silencio de la multitud, tan sonora y tan dura que golpea como un martillo.

Vivir sin ideas, por no querer delatarse.

Vivir en la distancia y sin tomar distancia hacia la realidad, sin dejarse llevar por el qué dirán.

Vivir sin temor, sin perjuicio.

Vivir sin primavera.

Vivir sobre, sobrevivir.

Nunca jamás la infravida, la existencia esclava, desprovista de libertad, sin destino.

Somos, en el fondo, supervivientes, porque vivir es lo que importa, pero importa vivir no de cualquier manera.

Elkar eta bakar, beti ez dira bidelagun

Elkarrekin bizi ala bakarrik bizi, horra hor ataka gaiztotik sortzeko ikus daitekeen agiria: bizi baikaitezke elkarrekin edo bizi gaitezke bakarrik.

Bietan, jakina, iritzi orokorra da elkarrekin bizitzea hobea dela bakarrik bizitzea baino.

Dena dela zehaztu beharko genuke zer den elkarrekin bizitzea, eta zer den, neurri berean, bakarrik egotea.

Elkarrekin bizitzea ez da bestearekin batera edo ondoan edo aldamenean bizitzea. Elkarrekin bizitzeak esan nahi du ni besteengan eta besteekin ni egiten naizela, eta besteak niregan beste egiten direla. Bestea den bezalakoa izanik naizela ni naizen bezalakoa.

Bakarrik bizi gaitezke besteekin ere bizirik. Eta besteekin bizitzeak ez digu, askotan, bakardadea arintzen eta samurtzen.

Baina elkarrekin bizi ahal izateko, lehendik ikasi behar bakarrik bizitzen.

Hona hemen nire galderak, elkarrengana zuzenduak.

Elkarri lotzeko jaiok gara. Zertarako dira, bestela, besoak inor besarkatzerik ez badugu, zertarako eskuak, inor ukitzeko ez badugu?

Zertarako, begiak norberaren eremuaz aparte ez ikusteko.

Zertarako bihotza, beste bihotz bat sentitzeko ez bada?

Bihotzak bizitza ziurtatzen digu; baina bizitzak ematen al digu bihotzik, bizi gehiago eskuratzeko.

Nola bihurtu ni-a gu, eta gu horretatik jauzi egin eta gu ez garen besteengana iritsi?

Nola bizi gainditu eta azpiratu eta hondoratu gaituen minarekin?

Nola bizi min eman digunarekin, urtetan iseka eta burla baino egin ez digunarekin?

Nola ikasi elkar hitzak sor ditzakeen kontzeptu guztien adiera betea: elkarbizitza, elkarkidetza, elkarrizketa, elkartasuna, elkarte?

Elkarren etsai gara, geure buruaren garelako etsai. Ez dugu elkar bereizten, laino batek kamustu dizkigu zentzumenak, alferrik.

Norberaren izaera ere askotan arrotz zaigu.

Nola ikasi berriro bizitzen?

Nola ikasi besteekin bizitzen?